

Joanes Iriarte eskultorea 1550ean Hondarribiko elizarako erretaula nagusia egin zezan hitzarmen bidez ekarri zuen bertako Udalak eta hiri honetxetan hil zen 1595. urtean. Ongi merezia du bere oroitzarri aldeotan agertzea.

J. Iriarte, izatez, altsasuarra zen, Nafarroako Burundakoa beraz, baina Donostian bizi zena. Bere bizitza eta lanetaz dakiguna oso guti da eta guti hori gehienbat Maria Asunzion Arrazolari zor diogu, *El Renacimiento en Guipúzcoa* (1967) deritzan obran agertu zuenari esker. Hala ere, esan beharra dut, eskultorearen lehen berriak eman zituen, bere jatorriari buruz eta Hondarribiko erretaularen egileztat aipatuz, Paul Lafond izan zela 1910.ean *RIEV* aldizkariaren 4. urtean, "Sculpteur basques en Espagne" izenburuz eman zuen lan haretan agertu zuenagatik.

Oso guti dira Iriarteren lan ezagunak. Hondarribira etorri aurretik Donostiako San Bizentzen aritu zen 1583-1586. urteetan, Ambrosio Bengoetxea alkizarrari laguntzen, hango erretaula nagusia egitean. Eskultore biok ziren Joanes Antxieta azpeitiarrarekin ikasiak eta honen eskolaren jarraitzaile leialak.

Hondarribiko Santa Maria eliza nagusiko erretaula zaharra, XIV. mendean Ingalaterran alabastroz egindako hura zen. Bere zati batzuk oraindik sakristian gordetzen dira, baina lehenagoko eliza erromanikotik zetorrena omen. Oraingo eliza gotikoa eraiki zenean aldare nagusian jarri omen zen. Baina tipiegia zeritzan hiritarrentzat eta deialdi baten ondoren aukerako erretaula berria egin zezan hitzarmena lortu zuten Iriarterekin 1550.ean, hiru urtetan lana bukatzekotan. Baina hemen aritu zen artean Oiartzungo eliza nagusirako Santa Katalina aldareko erretaulagintza ere



## JOANES IRIARTE

### ESKULTOREAREN HERIOTZAKO LAUGARREN MENDEURRENEAN

beregan hartu zuen; hemengoarekin batean 1551-1594 urteetan arituko zena. Gehiegizko lan horrek ekarri zion atzerapenagatik ezin izan zuen bete Hondarribikoa agindutako epea barruan. Gehiengo egin zuelarik, baina oraindik bukatzeka, etorri zitzaion heriotza. Ondotik, bere lanean laguntzaile zituen anaia Lope eta senide zituen Martin eta Esteban Ostiza aita-semeak jarraitu behar izan zuten Tolosako Jeronimo Larrearen laguntzaz proiektu hura bukatu arte.

Zoritxarrez, 1680. urtean erreketak batek hondatu zuen hemengo erretaula eta, bestalde, Oiartzungo Santa Katalinarako



egin zuen erretaularen arrastorik ere ez zaigu gelditu. Hemen, gutienez, Iriarteren lan baliagarri haren adierazpide ditugu sakristian gordetzen diren irudiak, batzuk pipiak erdi janak eta gehienak itokinak bustirik onddoak jota. Mende honen hasieran Hendaiara eman zituzten bi zatiak zori hobea izan dute, egoki berrizatuak han daude biak aldara nagusiaren bi alderdian gentearen ikusgarri.

Erretaulagintzaren tajura, Antxietaren bidea jarraituz, Trentoko kontrarreformaren arauak erabili zituen Iriartek bere gaitan, Bisitaziotik Pasiara arteko historiaz osaturiko irudiz erretaula hornitzeko. Lehenago erabiltzen ziren mitologia eta Testamentu Zaharreko hornidurak alde batera utziz. Maisu azpeitiarraren jarraitzaile leiala zen beraz, bai gaitan eta bai estiloz, honek sarrerazi zuen erronamista erak bikain erabiliz.

Oholetan gelditzen zaizkigun erretaula zatiak esko dira eta nabarmen ikus dezakegu irudigile bikainaren eskua. Adibidez, Amabirjinaren Koroazioa eta Bisitazioa hor ditugu, Garbikunde eta gainerakoei ezer kentzeka, eskultore lan eredugarriaren lekuko. Baina, Bisitazioa adierazten duen irudi laukotean agertzen den

geometriazko konposaketa paregabeak ematen bai dio mugimenduzko bizitasun berezia, bi gizonetako zutituen artean Santa Isabelek Mariari egiten dion erreberentzia, behetik gorako diagonal ausartak baliatzen du mirarizko talde osoa. Baina, batez ere M.A. Arrazolak zion bezala, *Ecce Homo* iserita aurkitzen den irudi tipia dugu Iriarteren irudigintza ahalmenaren lekukorik bikainena. Irudi hau, sagraiorako egina nonbait, gaur egun sakristian dago, esaten denez, 1872an Ponzio Pilatoren etxea zenetik ekarritako kapitela erromano baten gainean jarrita ikus daiteke.

Erretaulako irudi nagusia, Andra Maria Jesus Haurrarekin erreketan galdu zen. Irudi nagusi hura, 1598. urtean Antonio A. Oleaga donostiarrak polikromatua zen. Iriarteren asmoa zen nonbait hura bakarrik polikromatzea, erretaulan nabarmen ager zezan, baina 1615ean Iruñeko apezpikuaren eskariz Nikolas Breheville-ren esku utzi zen gainerako guziaz ere polikromatzea.

Gure historian eskulturak izan duen mailarik gorenetakoa hartu zuen XVI. mende hartan eta ondare haren lekuko zaigu Joanes Iriarte zenaren lana. ○

*Juan San Martin*

**GOIKOETXEA**  
**JANARIDENDA**  
**ETXERAKO ZERBITZUA**

San Pedro, 51  
 Tel. 64 10 29 HONDARRIBIA

ILEAPAINDEGI  
 MIXTOA  
 ESTETIKA

*Ab. Guezala*

SOKOA Merkataldegia  
 Tel.: 64 44 07  
 HONDARRIBIA

AUTO - ESCUELA  
**ALZAGA**  
 A-1, A-2, B, C, D, y E  
 KARNETEN TRAMITAZIOA

Zuloaga, 12  
 Tel. 64 16 23  
 HONDARRIBIA

C/Fuenterrabia, s/n.  
 Tel. 61 72 12  
 IRUN

Uranzu, 37  
 Tel. 62 16 27  
 Fax 62 33 95  
 IRUN